

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako airearen kalitatea “ona” edo “arras ona” izan zen 2017an, Europako indizearen arabera

*Hauxe da osasuna babesteari dagokion ozonoaren helburuko balioa kontrol-estazio guztietan lortu den lehendabiziko urtea*

Asteartea, 2018.eko ekainak 19

Nafarroako airearen kalitatea “ona” edo “arras ona” izan zen 2017an, Europako Batzordeak iazko azaroan aurkeztutako Europako Airearen Kalitateari buruzko Indizearen arabera. Giza-osasuna babesteko mailak ez ziren gainditu Nafarroan kokatutako ezein kontrol-estaziotan. Lehendabiziko urtez, estazio guzti-guztietan, osasuna babesteari dagokion ozonoaren helburuko balioaren gaintitze-kopuruaren [hirurteko batez bestekoa](#) legean ezarritako gehienezko 25 gaintitze-kopurutik beherakoa izan da. Ozonoari buruzko informazio eta alerta mailak ere ez ziren behin ere gainditu. Hala ere, Erriberan, landaredia babesteari dagokion ozonoaren helburuko balioa gainditu zen.

Indize hau gizakien nahiz ingurumenaren osasuna kaltetzen duten bost kutsatzaile hauetan oinarritzen da: esekidurako partikulak (PM2,5 eta PM10), ozono troposferikoa (O3), nitrogeno dioxidoa (NO2) eta sufre dioxidoa (SO2).

2017an, lehendabiziko aldiz, Nafarroa osoan bete zen osasun babesteari dagokion ozonoaren helburua. Honen arabera, gehienez 25 aldiz gainditu ahal da hirurteko batez besteko gisa ezarri den metro kubikoko 120 mikrogramoko muga (zortzi orduko eguneko gehienezko batez bestekoari dagokionez). Hirurteko baliorik altuenak Tuteran eta Funesen neurtu ziren, 22 aldiz eta 21 aldiz gainditu baitziren gehienezko mugak, hurrenez hurren. Ozonoari buruzko informazio eta alerta mailak ere ez dira gainditu: 180 eta 240 mikrogramo batez beste, orduko eta metro kubikoko. Hiruteko batez bestekorik baxuena Iruñeko estazioetan neurtu da (Iturraman, Gurutzeko Plazan eta Arrotxapean).

Horren aldean, landarediak jasan beharreko ozonoarekiko esposizioa eta ekosistemen babesa neurtzen duen AOT40 balioa gainditu da. Bosturteko muga bezala ezarrita dagoen batez bestekoa Tuteran eta Erriberriko estazioetan gainditu zen, eta Funesko estazioa mugako baliotik oso gertu gelditu zen.

Atmosferan sakabanatuta dauden esekidurako partikulei dagokienez (hautsa, errautsak, kedarra, partikula metalikoak, zemendua edo polena), baliorik altuenak Iruñeko Gurutze Plazan, Tuteran eta Erriberriko erregistratu ziren, urtean 18 mgr/m<sup>3</sup> batez beste, 40ko mugako balioa baino % 50 txikiagoa. Estazio hauetan eta Funesen 3 aldiz gainditu zen urtean 35 aldiz ere gaindi daitekeen eguneko 50 mgr/m<sup>3</sup>ko maila.

Partikularik txikienak, neurri handi batean hirietako diesel ibilgailuetatik datozenak, Iturramako estazioan baizik ez dira neurtzen. Hauxe da kutsatzailerik kaltegarriena, baina azken datuen arabera, ez da gainditu urteko 25 mgr/m<sup>3</sup>ko muga, neurtutako balioa 8 mgr/m<sup>3</sup>koa izan baita.

Nitrogeno dioxidoari (NO<sub>2</sub>) dagokionez, baliorik altuenak Iruñeko hiru estazioetan erregistratu ziren, baina legean ezarritako 40 mgr/m<sup>3</sup>ko mugatik urrun, izan ere, baliorik altuena Gurutze Plazan neurtutako 27 mgr/m<sup>3</sup>koa izan baitzen.

### **Airearen kalitate neurtzeko sarea**

Airearen konposizioak legeak ezarritako zenbait ezaugarri bete behar ditu, inguruko airean egon daitezkeen kutsatzaileek giza-osasuna eta ekosistemak kalte ez ditzaten. Nafarroako airearen kalitatea zaintzeko sarea osatzen duten estazioek denbora errealean neurtzen dute ondoko kutsatzaile hauen kontzentrazioa: sofre dioxidoa (SO<sub>2</sub>), nitrogeno oxidoak (NO eta NO<sub>2</sub>), ozono troposferikoa (O<sub>3</sub>), karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta esekidurako partikulak (PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2.5</sub>). Horrez gain, zenbait parametro meteorologiko ere neurtzen dituzte; hala nola, haizearen abiadura eta noranzkoa, temperatura, hezetasun erlatiboa, presioa, erradiazioa eta prezipitazioa.

Nafarroan, eskuzko eta automatizatutako 45 ekipok sortutako datuak erabiltzen dira. Nafarroako Gobernuaren Sareak 6 estazio finko ditu, horietako bat Iruñeko Udalarena; Fuerzas Eléctricas de Navarra eta EDP España sareek 2 estazio finko, eta Acciona Energia sareak estazio finko bat. Ebaluatzeko ekipa automatikoez gain, partikulak antzemateko eskuzko ekipoez lortutako datuak ere erabiltzen dira, akreditatutako laborategi batean aztertzeko.

Informazio gehiago lortzeko eta [airearen kalitateari buruzko datuak](#) denbora errealean kontsultatzeko, Nafarroako airearen kalitateari buruzko webgunera jo dezakezu.